

# 4 GEHIENGOEI MUZIN EGITEN DIE EUSKO JAURLARITZAREN "EREDU BERRIAK"

EL "NUEVO MODELO" DEL GOBIERNO VASCO DESPRECIA A LAS MAYORÍAS REPRESENTATIVAS

Eusko Jaurlaritzaren akordio hori sinatu eta gehiengoei muzin egiteko erabakia hartu izana trantsizioaz geroztik EAEn hartu den erabakirik larriena da.

Gobernuaren –eta EAJren– jarrera hiru posizio politikoren isla da: patronalaren aldeko Gobernuarena, Confefaskek kontratazioak prekarioak izatea –bai eta administrazioak ere– partekatzen duen Gobernuarena, eta erreibindikazioak egiteaz gain lagunkeriako harremanak onartzen ez ditugun erakundeekin beligerantea den Gobernuarena.

1994an EAJk oso bestelako zeregina bete zuen ELAk proposatuta, negoziazio kolektiboan estatalizatze ahaleginaren aurrean, euskal hitzarmenak babesteko klausula txertatzea lortu zuenean. 22 urte geroago, gertatzen ari den estatalizazioa Zapateroren erreformaren aurrean EAJk emandako abstentzioaren ondorioa da. 22 urte geroago, EAJk eta bere gobernuak babestu egiten du gure lan-baldintzak Madrilen erabakitzea (sektore pribatuan nahiz publikoan).

Urkullu lehendakariak eta Confefaskek gehiengoarekin egin ezin dutena egin nahi dute gutxiengoarekin. Egunen batean Euskal Herriak gizarte eta lan arloan legeak emateko gaitasuna izango balu... Zer egingo luke gobernu honek sindikalismo erreibindikatzailarekin?

*La decisión del Gobierno Vasco de firmar este acuerdo y despreciar las mayorías representativas es la más grave que se toma en la CAV desde la transición.*

*La posición del Gobierno –y del PNV– es reflejo de tres posiciones políticas: la de un Gobierno pro-patronal, la de un Gobierno que comparte con Confefask que la contratación sea precaria –también en las administraciones–, y la de un Gobierno beligerante con las organizaciones que reivindican y no aceptamos relaciones clientelares.*

*En 1994 el PNV jugó un papel muy distinto cuando logró incluir a propuesta de ELA, una cláusula para salvaguardar los convenios vascos ante un intento de estatalizar la negociación colectiva. 22 años después, la estatalización que se está produciendo es consecuencia de la abstención del PNV en la reforma de Zapatero. 22 años después el PNV y su gobierno defiende que nuestras condiciones de trabajo se fijen en Madrid (tanto en el sector privado cómo en el público).*

*El lehendakari Urkullu y Confefask quieren hacer con la minoría lo que no pueden hacer con la mayoría. Si algún día Euskal Herria tuviera capacidad legislativa en materia socio-laboral... ¿qué haría este Gobierno con el sindicalismo reivindicativo?*

# ZEIN ALDETAN ZAUDE ZU?

¿EN QUÉ LADO ESTAS TÚ?

**Lana duintzen laguntzen duten hitzarmenen alde**

A favor de convenios propios que ayuden a dignificar el trabajo



**Langileak prekaritatean hondoratzearen alde, gutxiengo baten mesedetan**

A favor de precarizar la clase trabajadora anteponiendo los privilegios de una minoría

**Gugan eragina duten erabakiak hemen hartzearen alde**

A favor de tomar aquí, las decisiones que nos afectan



**Patronalaren neurrigabeko boterearen alde**

A favor del poder ilimitado de la patronal

**Euskal gehiengo demokratikoa errespetatzearen alde**

A favor de respetar las mayorías democráticas vascas



**Arau demokratikoak arbuizatzearen alde**

A favor de despreciar las reglas de juego democráticas

**Ez dago euskal esparru ez autogobernurik negoziazio kolektiborik eta askatasun sindikalik gabe.**

**No hay Marco Vasco ni autogobierno, sin negociación colectiva y libertad sindical.**

# ELA LAN-BALDINTZA DUINEN ALDE

ELA A FAVOR DE UNAS CONDICIONES DIGNAS

ELAK behin eta berriz esan du erreformek botere gehiegi eman diotela patronalari; banaka-banaka gurekin nahi dutena egingo dute, horregatik, sindikatuan antolatuta behar gara, elkar babestu eta gure erreibindikazioei ekiteko.

- Soldata igoerak, KPIren erreferentzia galdu gabe.
- Lan-denbora murriztea enplegua sortzeko tresna gisa.
- Prekaritatearen aurka borrokatzea (hori lortzeko eremurik egokiena hautatuta). Kontratu berriak ziztrinak dira.
- Kasuz kasu, zentralitatea ematea genero-ikuspegiari, diskriminazioari, eta abarri.
- Negoziazio kolektiborako eskubidea berrezartzea sektore publikoan. Eusko Jaurlaritzak, PPK bezala, suntsitu egin dute.
- Azpikontratazioak egiteko administrazioek prestatzen dituzten baldintza-agirietan gutxiengo lan-eskubideak txertatzea, Eusko Legebiltzarrean aurkeztu eta EAJk, PSE-EEk eta PPK atzera bota zuten legegintzako herri-ekimenean ELAK proposatu zuen bezala: subrogazioa, hitzarmenik hurbilena aplikatzea... Lan-baldintza ziztrinak ezartzen dituzten beheranzko lizitazioak eragotzi nahi ditugu.
- Hitzartutakoa, enpresak alde bakar batez ez aplikatzea eragotziko duten klausulak txertatzea.
- Hitzarmenetan ultraktibitatea finkatzea, hitzartutakoak indarra gal ez dezan.
- Hitzarmenetan jasotako edukietan atzera-pausorik ez onartzea.

*ELA ha repetido en innumerables ocasiones que las reformas han dado demasiado poder a la patronal, uno a uno pueden con nosotros, por eso, insistimos en que debemos organizarnos, protegernos colectivamente en el sindicato para hacer frente a nuestras reivindicaciones:*

- Subidas salariales, sin perder la referencia del IPC.
- Reducción del tiempo de trabajo cómo instrumento para la creación de empleo.
- Luchar contra la precariedad (eligiendo el ámbito más apropiado para lograrlo). Los nuevos contratos son miserables.
- Dar centralidad, caso por caso, a la perspectiva de género en la precariedad, discriminación, etc...
- Restituir el derecho a la negociación colectiva en el sector público. El Gobierno Vasco, al igual que el del PP, la han destruido.
- Incluir en los pliegos de condiciones que elaboran las administraciones para subcontratar unos derechos laborales mínimos, tal y como ELA planteó en la ILP presentada en el Parlamento Vasco y que fue rechazada por el PNV, el PSE-EE y el PP: subrogación, aplicar el convenio más cercano... Queremos impedir licitaciones a la baja que imponen unas condiciones de trabajo miserables.
- Incluir cláusulas que impidan la inaplicación unilateral por parte de la empresa de lo pactado.
- Establecer la ultraactividad en los convenios para que no pierda su vigencia lo acordado.
- No admitir retrocesos en los contenidos de los convenios.

La mesa de diálogo es un plato precocinado en el que la patronal elige siempre los ingredientes, el Gobierno Vasco disimula los malos sabores y los sindicatos comen y callan.

# IRUZURRIK EZ

NO MÁS FARSAS

**EUSKO JAURLARITZAREN, CONFEBASKEN, CCOON ETA UGTREN ARTEKO AKORDIOEK ALDARRIKAPEN SOZIAL ETA SINDIKALA EZABATU NAHI DUTE ETA GEHIENGOAREN AURKA DOAZ**

LOS ACUERDOS ENTRE EL GOBIERNO VASCO, CONFEBASK, CCOO Y UGT PRETENDEN ELIMINAR LA REVINDICACIÓN SOCIAL Y SINDICAL Y VAN EN CONTRA DE LA MAYORÍA



**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

# ELKARRIZKETA SOZIALERAKO MAHAIA ITXURAKERIA HUTSA DA

## LA MESA DE DIÁLOGO SOCIAL ES PURA HIPOCRESÍA

Elkarrizketa sozialerako mahaian ez dago benetako elkarrizketarik ez gehiengo sozialaren mesederako politikak eraikitzeko borondatearik ere. Mahaiaren helburu bakarra patronalaren mesedetan Gobernuak dituen politikei babesa ematea da: laneko eta pentsioen erreformak aplikatzea, murrizketak ezartzea, zerga-sistema injustua, etab. Eta gutxieneko sindikalaren laguntzarekin egiten dute hori.

Horren ildotik, CCOO, UGT, Confesbask eta Eusko Jaurilaritzak negoziazio kolektiboari eta elkarrizketa sozialaren instituzionalizazioari buruzko zenbait akordio sinatu zituzten joan den uztailaren 22an; hain zuzen, gehiengoaren ahotsa kontuan hartzen ez duten eta euskal langileen lan-baldintzei modu negatiboan eragiten dieten akordioak.

*En la mesa de diálogo social no hay un diálogo real ni voluntad de construir políticas que beneficien a la mayoría social. Su único objetivo es dar cobertura a las políticas del Gobierno que benefician a la patronal: aplicar reformas laborales y de pensiones, imponer recortes, una fiscalidad injusta etc. Y lo hacen con el apoyo de una minoría sindical.*

*En ella firmaban CCOO, UGT, Confesbask y el Gobierno Vasco el pasado 22 de julio unos acuerdos sobre negociación colectiva e institucionalización del diálogo social que no tienen en cuenta la voz de la mayoría representativa y que afecta negativamente a las condiciones laborales de los y las trabajadoras vascas.*

## ZERGATIK DIRA KALTEGARRIAK AKORDIO HORIEK?

¿POR QUÉ SON MALOS ESOS ACUERDOS?

ZERGATIK DIRA KALTEGARRIAK AKORDIO HORIEK?

## 1 EROSO ETA MERKEENA HAUTATU NAHI DUTE SOLASKIDE

QUIEREN ELEGIR COMO INTERLOCUTOR AL MÁS  
CÓMODO Y BARATO

**NOLA?** Eraginkortasun Mugatuko Akordioak sustatzen dituzte; hau da, sindikatuen ordezkaritzaren % 50 baino gutxiagorekin sinatzen diren akordioak. Izan daiteke % 49arekin, edo % 25arekin edo, zergatik ez, % 5arekin. Izan daiteke sindikatu minoritario batekin edo enpresak berak bultzatutako hautagaitza batekin. Akordioa lortutakoan langileei eskaintzen zaie, banaka, hari atxikitzeko.

**ZER HELBURUREKIN?** Enpresaren zuzendaritza, patronala edo Gobernuak izan dadin akordioak nork hitzartzen dituen aukeratu duena, haren ordezkaritza zeinahi delarik. Erabaki horrek muzin egiten die hauteskudeen emaitzei, eta lan-baldintzei eragiten die, gainera: beti aukeratu baitute solaskide otzan eta merkeena.

**ZER HOBE PATRONALARENTZAT!** Onartezina da Eusko Jaurilaritzak bultzatzea Confesbask izan dadin nahi duen solaskidea hautatzen duena.

Zer irudituko litzaioke EAJri Gasteizen dituen 27 legebiltzarkideek eta UPyDk duen bakarrak pisu bera izatea?

**¿CÓMO?** *Promueven los Acuerdos de Eficacia Limitada, es decir, aquellos acuerdos que se firman con menos del 50 % de la representación sindical. Puede ser con el 49 %, con el 25 % o, por qué no, con el 5 %. Puede ser con un sindicato minoritario o con una candidatura impulsada por la propia empresa. Una vez alcanzado el acuerdo se ofrece a los y las trabajadoras para que, individualmente, se adhieran.*

**¿CON QUÉ OBJETIVO?** *Que sea la dirección de la empresa, la patronal o el Gobierno quien elija con quien cierra los acuerdos, sea cual sea su representación. Esta es una decisión que desprecia los resultados electorales y que afecta a las condiciones de trabajo: siempre elegirán al interlocutor más dócil y barato.*

**¡QUÉ MÁS QUIERE LA PATRONAL!** *Es inaceptable que el Gobierno Vasco promueva que sea Confesbask quien elija como interlocutor a quien le da la gana.*

*¿Qué le parecería al PNV si sus 27 parlamentarios en Gasteiz tuvieran el mismo peso que tiene el único parlamentario de UPyD?*

¿POR QUÉ SON MALOS ESOS ACUERDOS?

## 2 AKORDIO HORREK EZ DU BABESTEN EUSKAL NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

EL ACUERDO NO BLINDA LA NEGOCIACIÓN  
COLECTIVA VASCA

Urkullu lehendakariarekin akordio hori sinatu dutenak (Confesbask-CEOE, CCOO eta UGT) Euskal Herrian negoziatzea eragozten duten estatuko hitzarmenak Madrilen sinatzen dituzten berberak dira. Inork ez ditu horrela jardutera behartzen; baina hala egiten dute.

Euskal neoliberalak nahiago dituzte Espainiako hitzarmenak, xantaia egiteko eta soldatak jaisteko erabiltzen baitituzte. Confesbask ez zuen sinatu nahi izan euskal hitzarmenak babesteko lanbide arteko akordioa ez ELAren ez Gobernuarekin. Akordio hartako baldintza zen, sindikatuak negoziatioetan edozein gatazkari uko egitea haiek prekaritate eta soldaten jaitziera ezarri ahal izan zezaten. ELAK uko egin zion. Orain, Urkullu lehendakariaren aldekatasuna duen akordio honek bidea irekia uzten du laneko erreformei eta estatuko hitzarmenei etekina ateratzen jarraitzeko.

CCOOK, bestalde, estatuko merkataritzako mahaian, babestu egin zuen EAEn sinatu genuen Merkataritzako Sektoreko Esparru Akordioa "zapuztea" estatuko hitzarmenak aplikatzeko.

**ESTATALIZAZIOA ZER DEN IKUSTEKO  
ADIBIDEA.**

CCOOK, UGT eta patronalak Madrilen sinatu duten Jatetxe-arloko Hitzarmenean ezartzen diren soldatak Bizkaiko Ostalaritzako Hitzarmenean ezartzen direnak baino % 50 baxuagoak dira. Soldaten suntsipen honek kaltetutako pertsona gehienak emakumeak dira.

*Los que firman este acuerdo con el lehendakari Urkullu (Confesbask-CEOE, CCOO y UGT) son los mismos que acuerdan en Madrid convenios estatales en los que se impide expresamente negociar en Euskal Herria. Nada les obliga a actuar así, pero lo hacen.*

*Los neoliberales vascos prefieren los convenios españoles porque los utilizan para chantajear y bajar salarios. Confesbask no quiso firmar ni con ELA, ni con el Gobierno un Acuerdo Interprofesional para proteger los convenios vascos. Condicionó aquel acuerdo a que los sindicatos renunciásemos a cualquier conflicto en la negociación para poder imponer ellos más precariedad y caída salarial. ELA se negó. Este acuerdo que apoya ahora el lehendakari Urkullu le deja las manos libres para seguir sacando provecho a las reformas laborales y a los convenios estatales.*

*CCOO, por su parte, defendió en la mesa de comercio estatal "cargarse" el Acuerdo Marco Sectorial del Comercio que hablamos firmado en la CAV para que se aplicasen los convenios estatales.*

**UN EJEMPLO DE LO QUE SUPONE LA  
ESTATALIZACIÓN.**

*El Convenio de Restauración que han firmado en Madrid CCOO, UGT y la patronal establece salarios un 50% inferiores a los del Convenio de Hostelería de Bizkaia. Las personas afectadas por ese destroz salarial, son fundamentalmente, mujeres.*

ZERGATIK DIRA KALTEGARRIAK AKORDIO HORIEK?

## 3 ELKARRIZKETA SOZIALERAKO MAHAIA DIRU PUBLIKOAREKIN "BERMATZEN" DU

"CONSOLIDA" LA MESA DE DIÁLOGO SOCIAL CON  
DINERO PÚBLICO

Bigarren akordioak -gaizki izendatutako- Elkarrizketa Sozialerako Mahaia "bermatzea" aipatzen du. Eusko Jaurilaritzak egindako dokumentuetan esaten da "zehatu" egin behar direla haien politikekin bat ez gatozen erakundeak eta diru publikoarekin finantzatu behar direla, aldiz, bat datozenak. Mahaian sinatutako akordioak sinatzaileak finantzatzea du xede.

Mahaiaren helburu bakarra patronalaren mesedetan Gobernuak dituen politikei babesa ematea da, eta horregatik ez dago ELA mahai horretan. CCOO berak ere duela gutxi denbora batez mahaia utzi zuen, edukirik ez zuela argudiatuta.

*El segundo acuerdo habla de "consolidar" la mal llamada Mesa de Diálogo Social. En documentos elaborados por el Gobierno Vasco se defiende "sancionar" a las organizaciones que no apoyemos sus políticas y financiar con dinero público a quienes si lo hagan. El acuerdo firmado en la mesa pretende financiar a los firmantes.*

*ELA no está en esa mesa porque su objetivo no es otro que dar cobertura a las políticas del Gobierno que benefician a la patronal. Incluso CCOO hace pocos meses suspendía durante un tiempo su participación en ella, porque decía que no había contenidos.*

Eusko Jaurilaritzak euskal hitzarmenak suntsitu nahi dituzten erakundeekin bat egiten du.

El Lehendakari Urkullu es beligerante contra el sindicalismo reivindicativo.